



12:30 Musika eskaintza zabala izan zuten atzo Iruran ibili zirenek. Bigarren gunean, goizean hasita, Zea Mays, Obrint Pas, Trikizio eta Betagarri aritu ziren. Irudian, gune berean, Deabruak Teila-tuetan taldea.

Gari GARAIALDE | ARGAZKI PRESS



13:00 Gutxiago zikintzearren eta, neurri berean, hondakin gutxiago sortzearren, baso berrerabilgarriak erabili ziren ibilbideko postuetan.

Gari GARAIALDE | ARGAZKI PRESS

13:30 Denetariko eskaintza izan zen bazkalordurako. Irurako frontoian sagardotegiko menua eskaini zuten. Anoeta-ko frontoian, berriz, «Kmk menua», hau da, Ondarroako marmitakoa, biribilkia saltsan eta euskal pastela. Hirugarrenik, kiroldegian paella eta oilaskoa eman zituzten bazkaltzeko.

Gari GARAIALDE | ARGAZKI PRESS



17:00 Berrikuntza moduan, haurrei bularra emateko, edo fardela aldatu ahal izateko gune desberdinak prestatu zituzten ibilbidean zehar. Irudian, gune horietako bat.

Gari GARAIALDE | ARGAZKI PRESS



18:00 Egun osoan zehar bezala, arratsaldeko azken orduetaraino ibili zen jendea Irura eta Anoeta arteko ibilbidean.

Gari GARAIALDE | ARGAZKI PRESS